

TTAKUN (H)ERRENKA

Poligrafoen narkotrafikoa

Poligrafoaren bitartez, horrelaxe okurritu zait nire bi ttakunkideen azken artikulak, hau da, Beñaten *Salvame pixka bat* eta Uxueren *Boligrafo bat adibide*, biak nire ttakun berrian lotzea. Ez dit buru-kolpeak Pentsamendua-ren arloko ARGIA Saria ekarriko, baina, tira, bigarren erreskate plana desblokeatu aurretik, nik ere murrizketa neurriak aplikatuko ditudala erakutsi behar dut, alegia nire irudimena apalduko duen austeritate plan baten alde egingo dudala hemendik aurrera. Poligrafoa edo gezur-detektagailua pertsonaren zenbait parametro fisiologikoren aldaketak erregistratzen dituen aparatua da. Benetako errealitatea hil egin da, poligrafoaren garaia jaio da. Poligrafoaren menpe dagoenak botatzen duen izerdiaren, arnasteko egiten dituen mugimenduen, bihotzeko taupaden eta odoleko tentsioaren arabera, pertsona hori gezurra ala egia esaten ari den erabakitzen da. Orain urte batzuk, konpetentzia handia sortu zen telebista kate desberdinetan poligrafoa erabiltzeko orduan, baina Tele5ek makina horren erabilera areagotu egin du berriro, “famatuen” erantzunak egia edo gezurra diren jakiteko. Ez du oso normala ematen gezurrak asmatu eta kon-tatzea negozio den telebista saio-etan gezur-detektagailu bat sartu beharra, baina dibertsioen etxolak ez du aterik. Egia gezurretik bereizi nahi dutela? Bai zera! Tentelkeria litzateke hainbeste lan hartzea. Telebista saio gehienak gezurretan bizi dira, ez dudarik egin; orduan, gezur-detektagailua sartu eta gezurrari zerbitzatu, hori egiten dute. Gezurrak, poligrafoaren azpiegitura horrekin guztiarekin, itzelezko egiazkotasunaren itxura hartzen du. Zer egiten du Espainiako Gobernuak, onartu duen lan-erreformaren izenean, epe laburrean lanpostu berrien sorrera aldarrikatuz?

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

izenean, epe laburrean lanpostu berrien sorrera aldarrikatuz? Politikariek politika herriaren izenean egiten dutela esaten digute, baina Europar nabarmen ugaritu egin diren xomorro xantaigile horien negozioa narkotikorik kaltegarrienaren salmenta da: gezurra poligrafoarekin pikatua.

Poligrafoarekin pikatutako gezurra egiaren labelaren sari guztiakin eta esplikazio handirik eman beharrik gabe barreiatzen baita. Alferrik da kontra egitea. Ez sinestu nahi baduzu, horrek ere ez du askorik inporta. Horrek ez du ezertan aldatuko narkotikoa-ren eragina, mundua lo dagoen bitartean. AEBetan, poligrafoa dezentente erabiltzen da, baita lanpostu baterako hautagaien hitzen egiazkotasuna neurtzeko ere, psikologoek eta psikiatrek ere erabiltzen dute beraien ikerketetan, eta Europar Batzordeak merkatu beltzean ziren poligrafo guztiak erosi ditu lan-erreforma norabide zuzenean doala lan handirik gabe esateko. Poligrafoen narkotrafikoak Europako Gobernuen konplizitatearekin funtzionatzen du. Europako Gobernuetako alprojak lagun min dituzten bankariek saldatutako poligrafoen esanetara jarri dira, eta krisia entretentzeko erakusten diguten poligrafoaren xantaia eta egia onartu dituzte. Bizio hutsa. Eta, noski, egi ahulenen edo ahulenen egien kontra hasi dira beren munstro guztiakin poligrafo zaleak. Luxuzko gezurren erosleek ez dute egia finantzatzeko arazorik eta horrek mantentzen du merkaturia martxan. Egoera ekonomiko okerreanean, merkeena aberatsa izatea baita. Poligrafo zaleek ongi baino hobeto dakite egia sinesteak gezurra sinestea baino lan gehiago duela. Errealitatea makilatu beharrik ere ez dute, beste bat asmatu, eta kito. ■

